



## 1. Ahotik belarrira: Ilargia gazta handi bat da

Mundu osoan antzeko ipuinak sortu izan dira; inprenta eta aro digitalaren aurretik ere, herriz herri antzeko istorioak kontatzen ziren. Eremu guztietan izaki harrigarriak ikusten zituzten: emakume formako batzuek kantuan gizonak liluratu, eta bereganatzen zituzten haien kaltean; gizon formako beste batzuk ordea, mingain lizunez neskak erakarri, eta leku ilunetan gordetzen zituzten.

Kontu zahar horien artean, herri askotan erabili den istoriotxo bat dakargu gaur: [Ilargia gazta handi bat da](#), gurean Azkuek jasoa. Honen antzeko ipuin asko dira munduan: [Nola dastatu ilargia](#) adibidez, ilustrazio ederretan jarria, etxean edukitzeko liburu gomendagarri horietako bat. Lehenengoa, entzun eta amets egiteko; bigarrena, ikusiz gozatzeko.

## 2. Hausnarketa gunea: Galdekizunak

Gurasoen artean jaso berriak ditugun datuen inguruko hausnarketa bat egin nahi dugu. Hiru urteko haurren gurasoen artean, %50ak erantzun dio galdekizunari. Datuek gordin gordinean erakusten digute irakurketaren inguruko etxeetako ohiturak, eta gure herrian alor honetan ditugun gabeziak. Oraingoan, bibliotekaren erabilpenari buruzko datuei begiratzen diegu.

Liburutegira doazen artean, mailegu zerbitzua erabili	%
Bat ere ez	15,38
Bideoak, DVDak, joko interaktiboak	55,20
Ipuinak	76,47
Haur poesia	2,71
Besterik: komikiak, musika, gurasoentzako liburuak...	26,70

Erantzun duten gurasoen %63a joaten da liburutegira sema-alabekin. Hauetako batzuek, hala ere, ez dituzte mailegu zerbitzuak erabiltzen.

Irakurketa bide luze bat da, denboran garatzen dena, eta irakasleek, zein gurasoek, txikitatik lagundu beharko diete hurrei trebetasun hauek lortzen.

Horregatik, egitasmoak, familia eta biblioteken arteko lotura areagotu nahi du, eskolaren laguntzaz, liburuetik eta irakurketarekiko jarrera positiboak bultzatuz.

## 3. Egitasmoaren martxa: Bularretik Mintzora Ipuomamuan

ETBko [Ipuomamua](#) saioko bisita jaso genuen lehengo astean. Egitasmoaz galdetuta hiru lankide aritu ginen erantzunak emanez. Bertan aipatu genituen egitasmoaren ildo nagusiak: irakurtzeko ohiturak sustatzeko egitasmoa dela, eta hainbat herrietan osoki burutzen ari garela modu sistematizatu batean. Guraso eta hezitzaileengana zuzentzen garela, hauek baitira, gure ustean, bitartekaririk egokienak. Egitasmoaren ezarpena etengabe behatzen dugula, eta herriz herri bidaiatzen garela haur literatura eskoletan, biblioteketan eta etxeetan sartu nahian. Saioa ikusteko aukera izango duzue ETB 1en, ekainaren 18an, 21:00etan, edo [hemen](#).

## 4. Ongi pasatzeko: Handitzean zer izan nahi duzue?

Liburu zoragarri baten inguruan, [Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut](#), garatutako [sekuentzia didaktiko](#) bati erantzuten dio proposamen honek. Gehienetan liburuen irakurketak, eta ipuinen kontaketak ez du ondorengorik eskatzen, baina noizean behin, bigarren parteek zentzua hartzen dute. Horrela, pixkanaka hizkuntz literarioaz jabetu, eta fantasiaren adierazpenaren bideak jorratzen hasteko modua baita.

Zizurkilgo haur talde honek erabaki propioak hartu, eta handiak izatean bakoitzak zein animalia mota izan nahi duen marraztu dute. Guzti hau [Liburuen Altxorraren blogean](#) duzue ikusgai.